



KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK
MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK



**Dokumentu honetan “Kontratazorako Laguntzak 2025
programan sartzeko deialdiari buruzko funtsezko
informazioa jaso da**

**Dokumentu osoa webgune honetan irakurtzea
gomendatzen da:**

<https://www.bilbaoekintza.eus/eu/laguntzak>

Zein entitatek eska dezakete?



- Tokiko enpresek: pertsona fisiko edo juridiko pribatuak, lan-zentroa eta jarduera ekonomikoa Bilboko udalerriaren lurralde-eremuan dutenak, eta honako betekizun hauek betetzen badituzte:
 - Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatea
 - Beste administrazio batetik edo erakunde publiko edo pribatuetatik diru-laguntzarik edo laguntzarik ez jasotzea eta jasota ez izana, deialdiaren kontratazioak formalizatzeko Gizarte Segurantzako hobariak kanpo utzita
 - Zigor- eta administrazio-zehapenik ez edukitzea

Langabezian daudenak: Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean eta Langile Autonomoen Araubidean langile gisa alta eman gabe egotea. Baldintza hori, gutxienez, kontratazioa hasi baino egun bat lehenago bete beharko da, eta kontratatutako edo kontratatuko den pertsonaren lan-bizitzaren bitartez baliozkotuko da.

Bilboko udalerrian erroldatuta egotea, eta legezko egoitza bertan izatea. Ondorio horietarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak jasota duen helbidea hartuko da kontuan


Hurrengo ez da diruz lagunduko: Enpresa batek langile bera kontratatzea aurreko deialdietan diru-laguntza jaso badu.

Zein dira laguntzak?

- Gehienez ere, **8.000,00 euroko laguntza** lanaldi osoko kontratu bakoitzeko. Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren proportzionala izango da.
- Ekitaldi publikoetako artista eta langile tekniko eta osagarrientzako iraupen mugatuko eta lanaldi osoko hiru hileko lan-kontratu bakoitzeko, **3.000,00 euroko laguntza**; lanaldi osoko sei hileko edo gehiagoko bakoitzeko, **6.000,00 eurokoa**.

Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren proportzionala izango da.

Zenbateko ekonomikoak % 10ean handitu ahal izango dira kontratu horiek emakumeei eginez gero.



Zein dira laguntzak?

- Gehienez ere, **10.000,00 euroko laguntza** lanaldi osoko kontratu bakoitzeko eta **7.500,00 eurokoa** berriz, ekitaldi publikoetako artista eta langile tekniko eta osagarrientzako iraupen mugatuko eta lanaldi osoko baldin eta sei hileko edo gehiagokoak bada bakoitzeko. Denbora partzialeko kontratuen hiru eta sei hilabete bitartekoen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren edo lan egindako denboraren proportzionala izango da.

Talde hauetako pertsonak kontratatzen badira:

- DSBE/BGDSren hartzaile titularrak edo onuradunak
 - 35 urtetik beherako pertsonak
 - Iraupen luzeko langabeak
 - 55 urtetik gorakoak
-
- Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren proportzionala izango da.
 - Zenbateko ekonomikoak % 10ean handitu ahal izango dira kontratu horiek emakumeei eginez gero.

Zer dokumentazio aurkeztu behar da?



- Laguntzen deialdian parte hartzeko eskabidea bete
- Erantzukizunpeko Adierazpena
- Enpresaren IFZren fotokopia
- Udalaren legezko ordezkariaren eta NANaren fotokopia eta ahalorde-eskritura
- Eratzeko eskrituren eta eratzeko kontratuaren fotokopia, behar den moduan e
- Gizarte Segurantzako oraingo egoeraren ziurtagiria
- Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzaz ordainketak egunean dituztelako ziurtagiriak
- Ekonomia-jarduera Foru Ogasunean alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua (EJZ)





Noiz eta non eskatzen dira laguntzak?

Eskabideak eta dokumentazioa Bilbao Ekintza EPELeko Enpresa Sustapeneko Arloari (Enplegua eta Talentua) zuzenduko zaizkio <https://www.bilbaoayudascontratacion.eus> plataformaren bitartez. Horrez gain, plataforma horretan eskatzen diren betekizun eta baldintza teknikoak bete beharko dira.

Eskabideak aurkezteko epea 2025ko azaroaren 17ko 10:00etan hasiko da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean, eta 2025ko abenduaren 19ko 15:00etan amaituko da.



<https://www.bilbaoekintza.eus/eu/laguntzak>

Honako honi buruzko informazio guztia:

- **Laguntzen eskabidea**
- **Eskatutako dokumentazioa**
- **Ematea eta ordaintzea**
- **Entitate onuradunen betebeharrak**

Bilbao Ekintza. Enpresen Sustapena. Enplegua eta
Talentua Arloa

Tel.: 94 420 53 21 / 94 420 53 22

ayudascontratacion@bilbaoekintza.bilbao.eus